



## Kirol Eskalada

2010/11ko Kirol Jokoetako kanpainaren barne, otsailaren 12tik aurrera Kirol Eskalada izango dugu. Kirol Jokoetako beste jardueretan egiten den moduan, Kirol Eskaladan ere parte hartu ahal izateko adinak hurrengo hauek izango dira:

- **"A" Alebinak:** 1999 eta 2000 urteetan jaiotakoak
- **"I" Haurrak** 1997 eta 1998 urteetan jaiotakok
- **"C" Kadeteak:** 1995 eta 1996 urteetan jaiotakoak
- **"J" Gazteak:** 1993 eta 1994 urteetan jaiotakoak

Jarduera Rocopolisen egingo dugu, Berriobeitiko Sarrio Industrialdeko Cañada Real Kalean dagoena, ondorengo egunetan:

- **Otsailaren 12an, larunbatean** (Ikasteko jardunaldia)
- **Martxoaren 5ean, larunbatan** (Ikasteko jardunaldia)
- **Apirilaren 2an, larunbatean** (Ikasteko jardunaldia)
- **Apirilaren 9an, larunbatean** (Sailkatzeko proba)
- **Maiatzaren 21ean** (Finala – Nafarroako Txapelketa)

Jarduera bi txandatan egingo da, gehinezko kopurua 75 laguneko izanik. Izen-ematearen ordenaren arabera emango dira plazak. Izena ematen denean, zein ordutegia nahi duten esan beharko dute, Iruñeko ez diren mendi taldeek lehentasuna izango dutelarik.

Ikasteko jardueren ordutegiak izango dira:

- 1. txanda: 9.30etik – 11.30era
- 2. txanda: 12:00etatik – 14:00etara.

Sailkatzeko proba eta finala 9:30etik 14:00etara egingo dira.

**Otsailaren 8a baino lehen**, parte hartu behar duten umeen izenak jakinarazi beharko dizkiguzue [info@mendinavarra.com](mailto:info@mendinavarra.com) helbidean. Izen-ematea, jarduera honetarako egin dugun Excel orrian egingo da. ERANSKIN 1.

Martxak eta orientazio probetan parte hartu duetenek ez dute kirol eskalada ordaindu behar izango. Beste jardueretan parte hartu ez dutenentzat, salneurria 5 eurokoa izango da.

**Federatua izatea ezinbestekoa da**. Jarduera guztietan, partaideek Federatu Txartela erakutsi beharko dute.

Sailkatze proban parte hartu ahal izateko, gutxienez bi ikasteko jardunalditan aritu beharko dute. Finalean lehiatzeko, sailkatzeko proban parte hartzea eta bertan sailkapena lortzea ezinbestekoa da.

Joan-etorriak partaideen kontura izango dira,. Hau da, **EZ DIRA AUTOBUSAK JARRIKO, EZTA JOAN-ETORRIEN KILOMETROAK ORDAINDU ERE.**

Lehendabiziko hiru jardunaldiak ikasteko eta eskaladan hasteko izango dira.

Sailkatzeko proban eta Maiatzaren 21eko finalean, umeei 1. eta "Flash" moduan eskalatu beharko dute (monitorea nola igoko den ikusiko dute, gero haiek egiteko). Kategoría bakoitzean bina bide izango dira, ahalik eta puntu gehien lortuko duen kirolariak irabaziko du

Sailkapen probetan gertakariak gerta ez daitezten, 1. moduan eskalatzen ez dakiten neska mutilak baztertea Klubaren arduraduanaren betebeharra izango da.

Probak behin amaiturik, Rocopolisek betebeharrak hauek izango ditu: talde bakoitzaren entrenatzaileari edo arduradunari sailkapen kopia bana eman beharko dio eta federazioari bidali beharko dio. Astelehenetik aurrera federazioaren web orrian izango dira nahi duenak begira dezan.

Sailkapen horren aurka edo lehiaketaren garapenaren aurkako erreklamazioak egingo dira asteazkenaren 13:00 ordua baino lehen, horretarako egokitu diren orrialdeak erabilz (ERANSKIN 2).

Azken bi urte hauetako arrakasta ikusita, martxa eta orientazio probetan parte hartzen ari diren umeei eta intersaturik izan daiteken umeei ere parte hartzeko gonbidapena zabaltzeko eskatu nahi dizuegu.

**Mendi eta Kirolen Eskalada Federakundea – Federación Navarra de Deportes de Montaña y Escalada**  
**C/. Paulino Caballero, n.º 13 - 5º - 31002 PAMPLONA-IRUÑA**  
**Telf: 948 22 46 83**  
[info@mendinavarra.com](mailto:info@mendinavarra.com) – [www.mendinavarra.com](http://www.mendinavarra.com)